

GASTEIZ ANITZA

6.000 zapata eta hamaika kolore hiri anitza margotzeko

 **JENDARTEA** / Koldo Sagasti

Kultura eta kolore anitzeko hiria maite dutenek Gasteizko erdigunea hartuko dute gaur zortzi. Javier Maroto hiriko alkateak azkenengo hilabeteotan arduragabeki gaiztotu duen elkarbizitza bultzatu nahi du Gora Gasteizek, arrazakeriaren aurka altxatuz eta makina bat ekimen kultural antolatuz.

Zerbait ari da mugitzen Gasteizen azkenaldian. Hilabeteak dira Javier Maroto hiriko alkatea arrazismoaren mamua astintzen hasi zela, hamaika zorigaiztoko adierazpenen bitartez. Datozen udal hauteskundeetan porrot handia jaso dezakeela aurreikusita, populazioaren zati nabarmen baten aurreiritzi xenofoboak eli-

katzera dedikatu da azken garaiotan, horrek bere alderdi barruko ustelkeria eta miserien gaineko susmoak uxatu eta etekin elektorala emango diolakoan. Eraso horien jomugan Magrebetik etorritako auzokoak daude, batez ere; izan ere, alkateak ondotxo dakienez, Alderdi Popularraren balizko botoemaileen artean susmo txarrak eragiteaz gain, arabiarrek, oro har, ez dira bozkatzeko eskubi-

Irantzu Lekue, bere #6000zpt proiektuaren aurkezpenean.
Juanan RUIZ | ARGAKZI PRESS

dearen jabe. Oraingoan magrehtarren kontrako funtsik gabeko oldarraldiak izan dira: ez dutela lanik egin nahi, gizarte diru laguntzak kobratzearen etortzen direla Gasteizera... eta bazterrak nahastea beste helbururik ez duten justifikaziorik gabeko hamaika adierazpen. Baina ez da lehenengo aldia alkateak horrelako azpijokoak baliatzen dituela hauteskunde estrategia gisa. Aurreko hauteskundeetan ere, Zaramaga auzoan irekitzekoa zen meskitaren aurkako eraso izan zen bere kanpainaren ardatza. Gauzak horrela, auzapezak eta bere alderdikideak arduragabekeria handiz garatzen ari diren kanpainak dezente gaiztotu du elkarbizitza hiriburuan azken hilabeteotan. Baina Marotoren kanpaina xenofoboa akuilu ere izan da kultura eta kolore anitzeko hiria maite dutenentzat. Horrela, azkenaldian ez dira gutxi izan Gasteizen arrazakeriaren aurka altxatu diren ahotsak. Nor bere esparruan, auzo mugimendua, gizarte eragileak, sindikatuak, eskola komunitatea... indarrak metatzen ari dira kultura aniztasuna eta gizarte eskubideen defentsan, Gora Gasteiz izeneko plataformaren inguruan.

Kultura eragileek ere jarrera aktiboa hartu dute hasieratik herri mugimendu honetan, izan ere, Gasteizko zenbait idazle eta musikariek sostengua eman zioten Gora Gasteiz ekimenaren hasierako manifestuari. Herri ekimenak apirilaren 18a markatu du gorritz egutegian, orduantxe antolatu baitute hiriburuko erdialdeko kaleak hartuko dituen jaiegun erraldoia. Hitzordu horri begira, dudarik gabe, kultura eta arte esparruko eragileek izango dute zer esan.

ARTEA GASTEIZ KOLOREZTATZEKO

Kolore anitzeko Gasteizen aldeko aldarrikapenaren babesean, Irantzu Lekue artista arabarrak proposamen berritzailea egin du ospakizun handi horren bezpera egunerako. #6000zpt proiektua Andra Mari Zuriaren plaza eta Plaza Berria hartuko dituen arte instalazio batean da-



tza. Lekuek herritarren parte hartzea ezinbestekoa du, izan ere, 6.000 zapata bildu nahi ditu bere eginkizuna burutzeko. Sorpresa faktorea ez urratzearren artelanaren inguruko xehetasun guztiak argitu nahi izan ez badi-tu ere, artistak aurreratu du oi-netakoz osatutako forma ezber-dinek erdiguneko esparru hori hartuko dutela. Halaber, gaine-ratu du ekimena irekita izango dela une oro herritarren ekarpe-netara eta instalazioarekiko el-karreraginera. «Zapata, nire us-tez, metafora bat da. Jantzita eraman duen pertsonaren histo-ria darama bere baitan. Gerra guztietan, gatazka guztietan, za-pata galdu bat agertu ohi da, ja-bearen historia lazgarria itsatsi-ta daraman zapata galdu bat. Eguneroko objektu bat bada ere, askotarikoak dira zapatak, hiri hau osatzen dugun jendea beza-la. Era berean, aurrera tipi-tapa jarraitzen laguntzen digun tres-na da oinetakoa».

Artista gasteiztarra kulturak hirian pairatzen duen egoerak kezkatuta hasi zen bere proiektua mamitzen. Lekueren ustez, Udalak ezarri dituen diru murrizketak eragin zuzena izaten ari dira hiriko bizitza kulturala-ren gainbeheran. Iragan aben-duan ere salaketa hori plazaratu zuen Krea esparruan burutu zuen artelan baten bidez. Eraikin horretan 18 milioiko inbertsioa egin zuen Udalak, ustez, arte-sortzaileentzat izan behar zuen esparru bat egokitzeke. Hiru ur-te geroago, baina, eraikinak hu-tsik eta utzita jarraitzen du. Udal agintarien arduragabekeria sala-tzeko Lekuek *rangoli* bat margo-tu zuen komentu zaharreko ata-rian, indiar jatorriko kolore askotako margo apaingarria, ale-gia, «gero eta grisagoa den hiria koloreztatzeko». Ekimenak, bai-na, ez zuen luze iraun, udaltzai-nek artista identifikatu eta kale-ratu baitzuten. Lekuek artearen aldarrikapena ere egin ohi du bere esku hartze artistikoetan: «Eskolan hizkuntzetan, matema-tikan eta pentsaera logikoan tre-batzen gaituzte; bestelako adi-mena, berriz, ez da lantzen; adimen espaziala, pertsonala, pertsona artekoa... baztertuta

daude. Arteak pentsaera kritikoa garatzen laguntzen digu, gure inguruan gertatzen dena kolo-kan jartzeko tresna da, eta horre-xegatik nahi dute desagerrarazi, ez dutelako pentsalari askerik nahi, jende tentela baizik, jende tentela otzanagoa delako». Gas-teiztarrak dionez, artistak, bere lanaren bidez, bere inguruan eragiteko gaitasuna du, «arteak errealitatea eraldatzea ahalbide-tzen digu, gauza berriak sortzea, eguneroko grisaren gainean ko-lore pixka bat jartzea».

Apirilaren 17an Gasteizko er-digunean gauzatuko duen arte instalazioaren bidez, Lekuek he-rritarren batasuna irudikatu nahi du. «Kolore eta jatorri as-kotako zapatez osatutako arte-lanez Gasteizko aniztasuna iru-dikatu nahi dut, ezberdinak izanik denok batasun bat osa-tzen dugulako». Oso pozik ager-tu da gasteiztarra bere ekime-nak jendearen artean izan duen harrerarekin, jende asko jarri baita harekin harremanetan, proiektuari bere ekarpena egi-

teko, zapatak biltzen laguntze-ko, edo instalazioa gauzatzen duen egunean bertan nolabait laguntzeko. Bere ekimenak, gai-nera, beste artista batzuk ere xaxatzeko helburua dauka, egun horretan kalera atera dai-tezen. Udal gobernuko ordezkari-ek, aldiz, ez dute horren begi onez ikusi artistaren proposa-mena: «Uste dut Udalean ez du-tela oso ondo hartu nire ekime-na, oro har, ez dut uste inongo kritikarik ondo hartzen dute-nik. Proiektua iragartzeko pren-tsa agerraldia egin genuenean, kultura zinegotzia nirekin ha-rremanetan jarri zen zita bat hi-tzartzeko, baina gero ez dut ha-ren berririk izan. Uste dut traba egin diela proiektuak, are gehiago hauteskundeetara be-gira daudelako, eta kultur aniz-tasunaren mezuak haien estra-tegiaren kontra talka egiten duelako».

Artistak bere kezka agertu du arte-instalazioa kokatzeko be-har diren baimenak oraindik ez dizkietelako eman, eta eman ezean ezingo dutelako ekimena gauzatu. Hala ere, gogotsu dago eta dei egiten die hiritarrei za-patak biltzeko jarri dituzten postuetara gertura daitezen, euskaltegietara, auzo elkartee-tara, sindikatueta, eta abar. Gainera, ohartarazi du, jasotzen dituen zapata guztiak artelane-an erabili ostean ongintzako erakunde bati emango dizkiola. Lekuerena Gasteizko erdialdea okupatzeko helburua duen jai eta aldarrikapen egitarau oparo baten hasiera baino ez da izan-go, eta berak espero du Gora Gasteizen ekimenaren aitzakian beste artista asko ere kale-ra aterako direla hiriak bizi duen egoeraren inguruko kezka plazaratzera.

NAZIO BATUEN BABESAREN ESKE

Baina Lekue ez da bakarra izan. Beste artista askok ere baliatu izan dute haien lana Gasteizen bizi den giro gaiztotuaren gai-neko kezka azaltzeko. Eta zen-baitek larrutik ordaindu dute, Udalaren zigorrarekin, haien ausardia. Horixe da Marta Gil eta Juan Ibarrondoren kasua. Bata artista plastikoa da, eta,

Gora Gasteiz plataformak datorren larunbaterako antolatu dituen ekitaldien aurkezpena.
Juanan RUIZ | ARGAKI PRESS





bestea, idazlea; elkarrekin “Pertsona migratuen inguruko aurreiritzien detektagailua” izeneko proiektua jarri zuten abian 2013an. Erakusketa-tailerrak bataren marrazkiak eta bestearen testuak biltzen zituen, eta jendartean hedatutako etorkinen inguruko zenbait estereotiporen gaineko gogoe-ta sustatzea zuen helburu. Ekimena Oihaneder kultura zentroan egin zuten, eta hain izan zen arrakastatsua ezen Gizarte Gaietarako Sailak gizarte etxetara zein auzo elkarteetara zabaltzea proposatu baitzuten. Diru laguntza ere eskaini zieten Argituz erakundearekin elkar-lanean proiektua gara zezaten, eta gerora Norabidek (kulturar-teko ekintzak kudeatzen dituen Udaleko Sailak) erakusketa-tailerra ikastetxeetara hedatzea ahalbidetu zien.

Gasteizko Udal Gobernuak etengabe elikatzen dituen aurreiritzi xenofoboak kolokan jartzen dituen egitasmo artistiko-literarioak, hortaz, oihartzun handia izan behar zuen, 400 ikaslerengana ere iritsi behar zen, baina, azkenik, asmoa ezerezean geratu zen. Mercedarias eskolan jarduerari ekin baino ordu batzuk lehenago

egileek dei bat jaso zuten Udaletik, proiektua bertan behera geratuko zela esateko. «Gizarte Gaietarako Sailekoek ez ziguten inongo azalpenik eman», dio Ibarrondok, «agindu politiko bat zela baino ez». Zenbait eskolatan ere hitzartuta zuten tailerra egitea, eta, era berean, jarduera bertan behera uzteko deia jaso zuten irakasleek Udaletik. Argituz elkartearen ustez ez dago inolako irizpide teknikorik proiektua bertan behera uzteko, helburu bakarra Gasteizko Udal Gobernuaren kanpaina xenofoboaren sasiargudioak desmuntatzen dituen ekimen bat aurrera eramatea oztopatzea baino ez da. Hala-ber, ez dute uste gertaera hori kasu isolatua denik eta erakun-

«Pertsona migratuen inguruko aurreiritzien detektagailua» tailerra.
GAUR8

«Arteak errealitatea eraldatzea ahalbidetzen digu, gauza berriak sortzea, eguneroko grisaren gainean kolore pixka bat jartzea. Hori da Gasteizen egingo duguna»

«Kolore eta jatorri askotako zapatez osatutako artelanez Gasteizko aniztasuna irudikatu nahi dut, ezberdinak izanik denok batasun bat osatzen dugulako»

deen kanpaina orokor baten baitan kokatzen dute.

Gauzak horrela, eta beste babesik ezean, gora jotzea deliberratu eta Nazio Batuen Erakunde-ra helarazi nahi izan dute auzia. «Badira batzuk agintzera eta besteak isilaraztera ohituta daudenak», dio idazleak, «baina bagara beste batzuk isilik geratzen ez dakigunok». Egunotan, Genevan Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzarreko 28. bilkura egin ari da. Bertan arrazismoa da eztabaidagai nagusietako bat, hori dela eta, Argituz elkarte-ko babes-eskaera helarazi diete bertan bildutako giza eskubideen kontalariei Gasteizko aferan esku har dezaten. Ibarrondok neurri hori hartu izanaren arrazoa azaldu du: «Asmoa ez da izan migrazioaren inguruko tailerrekin gertatutakoa salatzea bakarrik, harago joan gara, Gasteizen etorkinen giza eskubideen aurka gertatzen ari diren jazarpen guztiak biltzen dituen txostena helarazi diegu kontalariei. Iragan uztailean alkatea, inongo daturik eman gabe, margebtarren gaineko susmoak eta aurreiritziak pizten hasi zene-tik, giroa dezente gaiztotu da hirian, eta hori kezagarria da. Arduragabekeria handiz jokatzen

ari da alkatea, berak piztutako txinparta hori benetako jendar-te gatazka baten abiapuntu izan daitekeelako, eta horrelako egoerak ikusten hasiak gara Gasteizen». Idazleak salatzen duenez, gainera, euren ekimena ez da izan Udalak bertan behera utzi duen bakarra. Aurreiritzi arrazistak deuseztatzea edo kultura aniztasuna xede duten beste ekimen batzuek ere pairatu dituzte murrizketak; hala nola, Goian egitasmoak, Alde Zaharrean bizi diren kultura eta jatorri anitzeko haurrei zuzendutako heziketa proiektuak; edota etorkinak alfabetatzen jarduten duten proiektuak. Salaketaren bultzatzaileek ondo dakite Nazio Batuetako kontalarien balizko ebazpen bat ez litzatekeela loteslea izango udal mailan, baina balio dezake auzia plazaratzeko, eta, akaso, Nazio Batuen Erakundeak gomendio bat egin diezaion espainiar Estatuari.

Horrez gain, Ibarrondo oso kritiko agertu da zenbait hedabide hauspoa ematen ari zaizkiolako udal gobernuaren kanpaina xenofoboari. Haren ustez, informatu beharrean etorkinen inguruko estereotipoak elikatzen ari dira komunikabideak. «Hirian gehien saltzen den egunkariaren ildo editoriala im migrazioa estigmatizatzen ari da, eta hori oso larria da, gizarteko sektore ahulena bazterketara kondenatzen ari direlako».

INDARRAK METATZEN

Gauzak horrela, kultura arloan, beste zenbait esparrutan bezala, asko izan dira azken boladan Gasteizen gertatzen ari den elkarbizitzaren gaiztotzea salatzen ari direnak. Eta zerbaiteko balio izan badu Marotoren kanpaina xenofoboak ahots horiek guztiek aurrerapauso bat eman eta indarrak meta ditzaten izan da. Iragan udan alkateak bere hauteskunde aurrekanpaina arrazista berezia abian jarri izana akuilu izan da kultura aniztasunaren eta elkarbizitzaren aldeko sare oso bat josteko, Gora Gasteiz ekimena. Kultura eta gizarte arloko pertsona ezagunak izan ziren Gora Gasteizen hasierako manifes-

tua kaleratu zutenak, eta, geroztik, milaka herritar, auzo elkarre, gizarte eragile, sindikatu, langile batzorde, etorkinen elkarre edota eskoletako guraso elkarre egin dute bat sarearekin. Gainera, aurretik ez bezala, mugimendu horrek balio izan du hirian isilean bizi diren jatorri anitzeko auzokoen komunitateak ikustarazteko; jatorri ezberdinetako herritarren arteko harresi ikusezinak birrindu, eta elkarlanean hasteko. Horren adibide, iragan martxoaren 27an, Barrenkaleko meskitako atarian auzotar talde batek egindako ekitaldi xumea. Auzo Komunitateak, eskolako guraso elkarreak, gaztetxeak, Zaharraz Harro jai batzordeak, Hala Bedi irriak eta beste zenbait eragilek deituta, auzokide magrebtarreko adiskidetzeko ekitaldia egin zuten, «ospakizun apala baina elkarbizitzaren bidean lehenengo urratsa», antolatzaileen ustetan. Jarduera horren bidez auzokideen babesa eman nahi izan zieten azkenaldian

eraso politiko eta mediatikoen jomugan dauden auzotarrei.

Hilabeteak daramatzate lanean Gora Gasteiz plataformako kideek Udal Gobernuak elikatutako aurreiritzi arrazisten aurrean kolore eta kultura askotako hiria aldarrikatzeko, hamaika ekitaldi antolatuz. Azken asteotan eztabaida jardunaldiak prestatu dituzte. Horietan itzal handiko adituek, datuak eskuan, alkateak baliatutako funtsik gabeko argudioak kolokan utzi dituzte. Arlo askotako adituek hartu dute parte; besteak beste, Arcadi Oliveres ekonomialaria, ekonomia kritikoaz aritu dena; Brigitte Vasallo idazlea eta Hajar Samadi Bidaya elkarreko kidea, islamofobia eta generoaren inguruan aritu direnak; eta Iñaki Uribarri eta Elo Mayo gizarte diru laguntzen inguruko gezurak desmuntatzen aritu direnak. Jakin-min handia piztu zuen ekitaldietako bat Gasteizko egunerokotasuna jorratzen duten kazetarien arteko mahai-ingurua izan zen. Topa-

Marta Gil eta Juan Ibarrondok «Pertsona migratuen inguruko aurreiritzien detektagailua» izeneko proiektua jarri zuten abian 2013an

Martxoaren 27an, Barrenkaleko meskitako atarian ekitaldi xumea egin zuen auzotar talde batek auzotar magrebtarrei begirunea adierazteko eta jaso dituzten erasoak salatze

keta horretan hedabideek pertsona migratuei ematen dieten trataera izan zen mahaigaineratutako kezka. Halaber, kultura, kirol eta gastronomia jarduerak ere lekua izan dute plataformaren egitarau oparoan. Eta hilabeteetako lan horri datorren apirilaren 18an jarriko diote ginga, kultur ekitaldiz beteriko jai egun batekin. Gora Gasteiz egunak hiriko erdialdeko kaleak hartzea du helburu, nor bere ghettoetik atera eta tradizioz kolore eta pentsaera bakarrekoak diren erdialdeko kaleak hama-

ka koloretan margotzeko. Maroto eta bere alderdikideek estigmatizatu nahi dituzten gutxiengoek usadioz betatuta dituzten esparruak hartzea da xedea, giza taldeok ikusarazi eta aitortzeko. Horretarako esku asko beharko dituzte; kaleak koloreztatze; plazak hamaika jatorritako zapatez eta pertsonen betetzeko; askotariko historiak gordetzen dituzten zapatekin milaka koloretako mosaiko bat osatzeko... eta kolore, pentsaera eta hizkuntza bakarreko hiria nahi dutenak isilarazteko.

Arrazakeriaren aurkako Gasteizko plataformak eta Gora Gasteiz deituta kalejira jendetsua burutu zen abenduan kolore anitzeko hiria aldarrikatzeko.
Juanan RUIZ | ARGAKI PRESS

